

Koldo Amezqueta

Eusko Alkartasunako lehendakariorde izendatu du alderdi horretako Batzar Nazionalak, duela gutxi, Koldo Amezqueta Díaz (Iruñea, 1944). Nafarroako Parlamentuan NaBai-ren ordezkari gisa egiten duen lana zeregin garrantzitsu batekin partekatu beharko du orain: Alderdia gidatzea ekainean egingo den ezohiko kongresura arte. Ez du lan makala bi sektore nagusien artean zubiak eraikiko baditu.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Josu Santesteban

«Zatiketa arriskua badago, eragozten saiatu behar dugu»

Askorentzat, zu EAren gidaritzan jartzeko erabakia "kontsentsuko" gizona zarelako hartu da. Alderdiko bi sektoreen babesaren sentitzen al duzu?

Erabateko babesarekin sentitzen naiz alderdiaren partetik, alderdia bere osotasunean hartuta, behin-behineko egoera hau nire gain hartzeko. Ni behintzat autoritate moral nahikoarekin sentitzen naiz egoera honi aurre egiteko. Beste gauza bat da gaitasuna ote dudana, hori demostratu egin beharko dut.

Baina konturatzen zara ia bi alderdiaren artean toreatu beharko duzula...

Ez dut uste. Aspektu ideologiko garrantzitsuetan ez dago diferentziarik. Egia da diferentziak izan, izan direla, seguruen alderdiaren estrategiari dagokionez. Baina momentu honetan garrantzitsua da oinarri ideologikoetan sakontzea, eta hor ez dut zalantzarik kontsentsu orokorra dagoela alderdiaren barruan.

Goazen porrotaren arrazoiak aztertzera. Sektore kritikoak, erabilitako

diskurtso "subiranistagoari" egotzi dizkio emaitza horiek. Zer iruditzen? Subiranotasuna, edo erabakitze eskubidea, edo autodeterminazioa, edo herri honentzako independentzia nahi izatea... Hori Eusko Alkartasunaren oinarrietan dago. Beraz, gizarteak eta botoemaileek hobeto edo okerrago uler dezakete, baina ukazina da EAko oinarri fundatzaileetan dagoela. Esatea hori dagoela porrotaren atzean, horrelaxe, bere horretan, ez zait logikoa eta koherentea iruditzen.

“EAJtik bananduta aurkeztu izana deskalabruaren arrazoietakoa bat da zalantzarik gabe. Baina uste dut momentu honetan badugula lehen ez genuen independentzia politikoa”



Hausnarketaren bat egingo duzue... Jakina, bistan denez hauteskundee-tako porrota hainbat gauzak ekarri du. Nik hemen eta kanpoan esan izan dut: EAJtik bananduta aurkeztu izana deskalabruaren arrazoieta-ko bat da zalantzarik gabe.

Beste batzuen artean, ezta?

Beste batzuen artean, ez bakarra. Baina uste dut momentu honetan badugula lehen ez genuen independentzia politikoa. Agian estuegi eta denbora askoan heltzen gintuen soka bat moztu dugu, eta orain etorkizuna beste modu batean ikusten laguntzen digu horrek, ikuspegi hobegoarekin. Hanka sartzea izan da bakarrik joatea? Edo prezioa izan da? Kostu handia izan dugu, baina kostu horren zati bat ez ote da izan pausua eman arte denbora gehiegi itxaron dugulako? Hausnarketa bat da, zeren eta horretaz guztiaz hausnartu beharko da.

Oinarri fundatzaileetara “itzultzeko” beharra ikusi dute zenbaitzuk. Zu Eako fundatzaileetako bat zara, uste al duzu oinarri horiek galdu direla?

Bene-benetan uste dut ezetz. Baina norbaitek hori uste badu, has dadila esaten zein oinarritzko ezberdintasun dauden ordukoaren eta oraingoaren artean. Erretorikak gauza askotarako balio du, baina ez lan eraginkorra egiteko.

Ba al dago arriskurik Eusko Alkartasuna desagertzeko?

Erabat seguru nago ezetz. EA proiektu bat duen alderdia da, antolakuntza dauka, afiliazioa, presentzia publikoa instituzioetan... Ez dago inolako arrazoirik desagertzeko, eta gutxiago barne desadostasunengatik, horrek ez luke zentzurik izango.

Baina badago zatiketa arriskua...

Ez dakit ba ote dagoen... Baina baldin badago, hori eragozten saiatu behar dugu, zeren eta gehiago dira adostasunak desadostasunak baino. Akordio falta egon izan da hauteskundeetara aurkezteko moduan; eta agian, akordio falta horri eman izan diogun tratamendua da honaino ekarri gaituen arrazoietakoa bat: gehiegi hitz egin eta idatzi dugu hedabideetan, eta batzuetan ez oso jokabide garbiarekin.

Erabilitako terminoez ari garela... Alderdiko sektore nagusitik “traizioa” eta “boikota” deitu zaio sektore kritikoaren jokabideari.

Pentsatzen dut hauteskunde hauetakoa bezalako bainua hartzen denean, espirituak prest egoten direla modu horretan erreakzionatzeko, eta nolabait uler daiteke... Seguruena egon dira portaerak gertatu behar ez

Hauteskundeetara bakarrik joatea hanka sartzea izan da? Edo prezio bat izan da?

zirenak, baina horrek ez luke eztabaida berrien ardatz bihurtu behar. Aztertu behar dugu zer egin dugun batzuek eta besteok gaizki, konponbideak bilatzeko eta ez erortzeko berriz ere akats berdinetan.

Ekaineko ez ohiko kongresuan EAK atea irekita utz ditzake nahi duenak alde egin dezan?

Ez dut uste atea irekitzeaz hitz egin behar dugunik, inor ez dadila joan saiatu behar dugu. Jakina, kongresutik irten litezkeen gehiengoaren ondorioekin norbaitek ulertzen badu hau ez dela bere etxea... Baina hori beste edozein elkartetan ere gertatzen da. Aurretik onartuko ez dudana da barruko ezberdintasunen konponbide bakarra zatiketa izatea.

Orduan, zein dira hainbeste urteko korapiloa askatzeko gakoak?

Badago funtsezko gako bat: ahalik eta bat egite maila handienara iristea. Orain hiru hilabete ditugu oinarritzko bi kontuz eztabaidatzeko: Estatutuak aldatzea –aurretik datorren konpromisoa da– eta kongresura eramango dugun ponentzia politikoa. Horietan bat egite mailarik handiena lortu behar dugu eta gero kongresuak erabakiko du. Baina ondoren ez da kabitzen erabaki horren kontrako jokaerarik; desadostasunean egoten segi daiteke, baina ezin da alderdiaren barrutik horren kontra egin, hori oinarritzkoa da.

Subiranotasunak “numerikoki azaldu beharko du”

Egin berri duzuen Batzar Nazionalen Unai Ziarretak esan zuen “ardatz subiranista”ren bidetik jarraitu behar zela. Bestalde, Arnaldo Otegi proposamena egin zien sektore subiranistei. Zer balorazio egiten du EAK?

Lehenengo balorazioa da erroetara begiratzea. Hasieratik gure ibilbidea lau zutabetan oinarritu da: autodeterminazioa, sozialdemokrazia, bide demokratikoak erabiltzea –indarkeria espresuki gaitzetsiz– eta instituzioetan parte hartzea. Orain zutabe horietara jendea hurbiltzen ari da, agian duela urte batzuk gauzak hain argi ez zituen jendea... Guri ederki iruditzen zaigu printzipio horien inguruan nukleo sozial bat sortzea.

Beraz, Otegi esandakoaz...

Zer da Otegi esan duena? Pentsaera molde horretara indarrak biltzen joan behar dugula? 22 urte daramatzagu

hori esaten! Beti esan dugu hemen ez dela inor sobran, baina gure printzipio horiek ere ez daude sobran, eta horietako oinarriren batekin desadostasunik badago, lehenik konpondu egin beharko da. Seguruena, diferentzia horiek sortzen dituzten kausak ezabatu beharko dira, baina ez irizpideak.

Badago, orduan, epe ertainera “ardatz subiranista” artikulatzeko aukerarik?

Nik ez diot izenik jarri nahi... ardatz subiranista? Ez dago izen bati lotu beharrik. Gizartearen sentimendua handitzen ari da ideia horien inguruan eta numerikoki lehena go edo beranduago horrek agertu beharko du. Hor sartzen garen alderdi politikook pausoak emateko obligazioa dugu. Ezin dena ulertu da lau, bost edo sei sigla egotea berdina pentsatzen dutenak eta bakoitza bere aldetik ibiltzea.

Estatutuetan aldaketarik egon liteke alderdi barruko eztabaidak hain nabarmen ez azaleratzeko?

Hedabideetan izaten diren eztabaidak eta desakordioak ez dut uste estatutu arazoa direnik, baizik eta portaera pertsonalena, eta hor neurriak hartu behar dira. Norbaitek behar ez den zerbait esaten badu hedabideetan, badago organo bat segituan ezetzatzen atera beharko lukeena. Pertsonalki uste dut hori dela bidea, baina onartu beharra daukat nire proposamenek ez dutela arrakasta gehiegi izan zentzu horretan.

Iñaki Galdos buru duen Gipuzkoako EAK “Suspertu” izeneko hausnarketa prozesua hasi du.

Nik dudak informazioa, horri dagokionean, oso laburra da, dakidan bakarra da existitzen dela. Zehazki, deialdi baten idatzia irakurri dut eta badakit bilera bat egin zutela. Niri iruditzen zait hausnarketa guztiak baliozkoak eta onak direla, ez dut inongo eragozpenik egoerak argitu eta konpontzeko interesarekin eginak badira.

Baina egon liteke beste interesik atzean?

Erabiltzen bada murrizpenak egiteko beste kontu bat litzateke, baina ez dut uste kasua denik. Jarrera irekiaz, iritzi aniztasunez eta analisi zabalak eginez egiten bada oso

ondo iruditzen zait. Parte hartzeak beti dira onak.

Kongresua baino lehen Europako hauteskundeak datoz. Beste formularik aztertu al duzue “Herrien Europa” koalizioaz gain?

Gu EAL-eko (Europako Aliantza Librea) kide gara. Duela bost urte bertako kideez osatutako koalizio batean aurkeztu ginen eta gure asmoa, interesa eta nahia modu berean egitea da oraingoan ere.



Koldo Amezketak bere bulegoan, Iruñeko Gaztelu Plazan EAK duen egoitzan.

ERC-k koalizio horretan joatea proposatu dio Aralarri.

Oso ondo iruditzen zaigu. Batzeden guztia zuzena da guretzat.

EAEko Gobernuan aldaketa datorrela dirudi. Egingo al zenuke pronostikorik PSE-EEren jardunaz?

Ez nintzateke ausartuko... Badirudi PSE eta PP bat datozela Patxi Lopez babesteko. Nik uste dut arazoa hurrengo egunean etorriko dela, zeren eta zaila da pentsatzea bi alderdi horiek bat etorriko direnik biek onartutako ildoetan gobernatzeko.

Transbertsala izango dela dio Patxi Lopezek...

Patxi Lopezek hori dio, baina sekula ez diot horrelakorik entzun PPri. Hemendik ikusita [Nafarroatik] EAEn pasako dena antzekoa izango da: Estatuko alderdien elkartzeari abertzaletasuna joko kanpo uzteko.

Eta zein izango da EAren jarrera zentzu horretan?

EAK inondik ere ez du babesteko Lopezen hautagaitza. Eta Ibarretxe aurkeztzen bada, lehenik jakin beharko da zein den bere proposamena. Zer egiteko aurkeztuko da? Hauteskundearen aurretik egin genuen galdera berdina da: Batera joan behar dugu, zioten, baina zer egiteko? ■